

Herririk Herri | 3|

16 dantza taldek parte hartuko dute bihar Garaiko Ezpatadantzari Egunean



Berbaz | 8|

M. Gonzalez: "1980ko hamarkadatik hona txarrera egin du albisteen kalitateak"

Kirola | 16|

DRTk eta Arrasateko errugbi taldeak hitzarmena etetea erabaki dute



Orain bost urte hasi zuten memoria historikoaren berreskurapenerako lanaren lehen zikloa plazaren inaugurazioagaz amaituko da. Otxandioko Udala

Bonbardaketa eta oroimena elkartuko dituzte Otxandion

> Uztailearen 22an, 75. urteurrenean, Andikona plaza eraberritua inauguratuko dute

> Nestor Basterretxearen eskultura ere bistaratuko dute, ekitaldi askoren artean

2

Silvia Palumbo musikaria kantuan, Etxezarreta parkean

KULTURA• Maiatzean eta ekainean emakumeen jabekuntzarako perkusio tailerra gidatu duen Silvia Palumbo musikariaren emanaldia dakar Uda Klean Bizi jaialdiak uztailearen 12an Durangora. Tailerrean ikasle izan zituen emakumeak ere gonbidatuko ditu Etxezarreta parkean eskainiko duen kontzertuan oholtza gainera igotzera.

11

• Berriz

Aukera Azoka egingo dute zapatuan probalekuan

4

• Iurreta

Enpresa proiektuak sustatzeko lehiaketa abiatu dute

4

• Abadiño

Mendiolako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

7

• Durango

Babeseko 170 etxebizitza zozkatuko dituzte San Roken

7



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

Ekainaren 30etik
Uztailearen 14ra

MATRIKULA OFIZIALA

2011-2012

Ikasle guztiak: ekainean gainditu dutenak zein gainditu ez dutenak, eta ikasle berriak
EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA, ALEMANA

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako webgunearen bidez:

www.eoidurango.net

Zubiaurrea, 1 (DURANGO) ☎ Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42



HERRIRIK HERRI >

OTXANDIO

Bonbardaketaren 75. urteurrena gogoan, hilaren 22an eta 24an

Egun horretako ekitaldiek Andikona plaza eraberritua inauguratzeko balioko dute

Frankistek Otxandio bonbardatu zuteneko 75. urteurrena izango da uztailearen 22an. Santamañetan, herria jai giroan zela jaurti zituzten bonbak, gehienak Andikona plazan. 50 hildakotik gora eragin zituzten; gerra hasi berri zen artean.

Urtero, herritarrek oroimen ekitaldia egin izan dute eta, aurtun, uztailearen 24an izango da. Lehen aldiz, baina, ekitaldi instituzionala izango da. Azaldu digutenez, duela bost urte memoria historikoaren gainean hasitako lanean inflexio puntua izango da: "Ziklo bat amaituko da, berri bat

Memoria historikoaren gaineko lanean ziklo berri bat hasiko dute aurtun

Uztailearen 22rako ekitaldi andana antolatuko dute, Andikona plaza inauguratuz

hasteko". Izaera instituzionala duen aldetik, formatuz ere aldatuko da; esate baterako, abadeak ez du parte hartuko.

Egun berezia izaten da herrian uztailearen 22koa, eta aurtun zer esanik ez. Gainera, Andikona plaza eta bertarako beren-beregi Nestor Basterretxeak landutako eskul-

Urtero egin ohi duten oroimen ekitaldiak izaera instituzionala izango du hemendik aurrera

tura inauguratzeko aprobetxatuko dute; 19:00etan izango da hori. Arratsaldeko 19:45ean, ez ohiko udal bilkuran elkartuko dira ordezkariak, adierazpen instituzionala onartzeko. 20:15ean, *Gerra zibila Otxandion* liburua aurkeztuko dute Kultur Etxean; Eusko Ikaskuntzak eta udalak plazaratutako bekagaz Zigor Olabarriak burututako ikerlana da.

Gaueko 22:00etan ikus-entzuzko ekitaldia hasiko da Andikona plazan bertan eta, gero, 23:00etan, ikuskizuna ekarriko



Aurtengo ekitaldiak prestatzeko hilabeteetako lana egin dute. Juanra de la Cruz.

dute Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Nika Bitchiasvili musikariek. Hauekin batera, Traspasos dantza taldea ere ariko da.

Plaza eraberritua

Andikona plaza eraberritu egin dute urtemugarako. Goialdea eta behealdea berdindu dituzte, eskailera batzuk sortuz. Hartzeko bloke landuak ezarri dituzte, jesarleku funtzioa gehituz, eta argiteria ere berrituko dute.

Plazari izaera berezia emango diona, baina, Nestor Basterretxeak egindako eskultura da. Gainera, bonbardaketan hildako guztien izenak jasoko dituen horma ere eraiki dute. ■ M. Onaindia

Herritarren parte-hartzeagaz osatutako laburmetraia

Uztailearen 22an bertan burutuko dituzten ekitaldien artean laburmetraia berri baten estreinaldia egingo dute. Gaueko 22:30etik aurrera, ikus-entzuzko saio berezia eskainiko dute; bertan, otxandiarren parte-hartzeari esker garatutako laburmetraia proiektatuko dute.

Martxoan hasi ziren grabaketekin, eta 80 lagunek egin zituzten aktore lanak hasieran. Bigarren txanda batean, ekai-

nean, beste 70 bat lagunek antzestu dute kameraren aurrean, eta oraintsu muntaia lanetan ibili dira.

Prest dago fikziozko lana, 10 minutu inguruko luzapenagaz. Beharrez aritu direnek azaldu digutenez, "bonbardaketa egunean Otxandion gertatu zena islatzen" saiatu dira, sasoi hartako lekukoaren esanak eta istorioak oinarri moduan hartuta. ■ M.O.



Nestor Basterretxea
(Bermeo, 1924)

- Eskultorea
- Margogilea

Uztailearen 22an plaza berria inauguratuko dute Otxandion. Herriak jasandako bonbardaketa ardatz hartuta, Nestor Basterretxeak eginiko eskultura ezarriko dute plaza berrian.

Zelan sortu zen eskultura egiteko aukera?

Eskultura egiteko aukera eskaini zidatenean, segituan onartu nuen; batez ere, bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, bere esanahiagatik; ikaragarria izan zen hura, hainbeste hildako, baita umeak ere... lehenengo, guzti horregatik. Bestalde, Otxandion herriak gerra zibila lehertu zela

jakin barik jasan zuen bonbardaketa hori, guda hasteaz bat gertatu zen-eta. Gertakari horren lekukoa izan behar zuela irudituz zitzaidan.

Horrez gainera, eta neurri txikiago batean bada ere, ni txikitant Otxandiora joaten nintzelako ere bai. Nire aitaren aldeko amama bertakoa zen, eta, egia esateko, horrek begikotasun bat

"Bizitzaren eta heriotzaren irudiak parez pare egongo dira"

pizten dit Otxandioko herriarekiko. Batez ere, bi arrazoi horiek bultzatu naute eskultura egitera.

Zertan datza eskultura?

Bonbardaketatik dator eskulturaren ideia; heriotza zerutik datorrela da eskulturaren ardatza. Hori dio obrak, hizkuntza abstraktu baina nahikoa garbi batean. Eskultura biolentoa da, sei metro izango ditu, eta diagonalak izango da. Jauzi ziren bonbak irudikatzen ditu; ez dut uste bonbardaketa besteko mingarria denik, baina gertatu zenaren lekukotasuna ondo ematen du.

Nikuste dut, beharbada jende askok ama bat eta bere ume hilen inguruko zeozer itxaroten zuela, baina ez da hori. Modernitatearen baitan egin dut lan, eta

irudituz zaidana egin dut. Plazan ezarri zutenean bertan egon nintzen; gustatu zelakoan nago.

Plaza berri horretan arbola berri bat ezarri behar dute, lau metrokoa; bizitza sinbolizatzen du, eta horrenbestez, bizitza eta heriotza parez pare egongo dira plazan.

Zelan egin duzue obra?

Otxandioko aspaldiko enpresa indar handiko bat izan da obra egin duena; oso lan ona egin dute, gainera. Bertako ingeniariak nik egin ez ditudan kalkulu batzuk egin dituzte; eskulturaren egonkortasuna eta horrelakoak neurtu dituzte. Nik uste dut sorkuntzan parte hartu dugun guztiok oso pozik gaudela emaitzagaz, batez ere ni.

Obrak, orokorrean, zeresana emango du; eskulturaren originaltasunak zein plazaren beraren egiturak zeresana emango dute. Nik uste dut asmatu egin dugula, eskultura eta plaza oso originalak dira-eta. ■ A.M.



Eskulturaren detaileak



➤ GARAI

39. Ezpatadantzari Eguna, Gerediagak antolatuta

Durungaldeko 16 dantza taldek parte hartuko dute ospakizunean

Bihar, zapatua, Durungaldeko Ezpatadantzarien Eguna ospatuko dute Garain; ekitaldia ospatzen den 39. biderra izango da.

Iaz Abadiñon egin ondoren, aurten Garain batuko dira Durungaldeko dantzariak. Guztira, 128 ezpatadantzari parte hartuko dute ekitaldian; txistulari eta laguntzai-

leak kontutan hartuta, 200 lagun inguru batuko dira. Durungaldeko zortzi herritako 16 talde batuko dira. Jaia, arratsaldean hasiko da; arratsaldeko 18:30ean kalejira egin-

Dantzari, txistulari eta laguntzailerik hartuta, 200 lagun inguru batuko dira

go dute, eta ondoren, dantza saioa; dantzari dantza osoa dantzatuko dute, eta gero aurraskua.

Ezpatadantzari Eguna 1967. urtean antolatu zuten lehenengo biderrez, Iurretan. Durungaldeko dantza taldeak batzeko helburuagaz antolatzen da egun hau, baita galbidean zeuden dantzak berreskuratzeko ere. ■ A.M.



Durungaldeko dantzarien topagune izango da zapatuan Garai. Txelu Angoitia.

➤ MAÑARIA

Herriko jaietan mañariarren parte-hartzea bultzatu guran

Datorren astean, abuztuko Andramari jaietan herritarren parte-hartzea bultzatzeko batzar irekia deituko dutela azaldu du gobernu taldeak. Endika Jaio alkatearen berbetan jaso dugunez, Bilduk alkatetza hartu zenerako aurreko gobernu taldeak osatua eta lotua zeukan jai-egitaraua mantenduko dute, baina abuztuko herriko jaiei begira hainbat berrikuntza egingo dute.

Txosna berreskuratuko dute aurten, esaterako, eta herriko elkarteei gonbita egin diete jaietan parte hartu dezaten: txosnaren eta jaien antolakuntzaren beste ardurak batzuk ere herritarrekin konpartitu guralituzkete.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmo horretan, iaz 25 urte bete zituen Andra Mari elkarteari proposatu dio gobernu taldeak jaien hasierako txupinazioa botatzea.

Bestalde, Endika Jaio alkateak joan zen astean Anbotori emandako datu bat zuzendu gura izan du: "Joan zen legegintzaldiko korporazioaren udalbatzarretako asignazioa zinegotzi bakoitzeko 125 eurokoa zen, ez 150 eurokoa". ■ I.E.

➤ MALLABIA

Xabat Uzuriaga mallabitarraren kartela izango da jaien iragarle

Xabat Uzuriaga 20 urteko mallabitarrak irabazi du Andramari jaietako kartel lehiaketa. Aurtengo izan du kartel lehiaketa batean parte hartu duen lehenengo aldia.

Paint programagaz landutako kartelean jai giroaren isla diren hiru irudi batu ditu: paella txapelketa, pilotalekua eta txalaparta. "Paella txapelketa jaietako ekitaldirik jendetsuenetakoa izaten da, eta horregatik sartu dut", dio. "Pilotalekua herrian pilotarekiko dagoen afizioagatik aukeratu dut eta txalaparta Euskal Herriko musika instrumento ezaguna delako", azaldu digu Uzuriagak. Irudien ertzetan jaietako egunak azaltzen dira goitik behera.

Paella txapelketa, txalaparta eta pilotalekua islatzen ditu Uzuriagak kartel irabazlean

Lehiaketa irabazi arren, ez du argi oraindino hurrengo urtean berriro aurkeztuko den kartel lehiaketara: "Gogoaren eta daukadan denboraren arabera erabakiko dut". ■ J.D.

Lanerako gertu!

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/gep

» Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012

Matrikulazioa Uztailaren 4tik aurrera

MGEP	OÑATI Gestio Heziketa
<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa. • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Idazkaritza • Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a
Kontsulta pertsonalak:	
<p>943 71 21 91</p> <p>E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu</p>	<p>943 71 80 09</p> <p>E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu</p>

BERRIZ

Aukera Azoka bueltan da, merkatarien ekimenez

Bihar ospatuko da ekitaldi honen hirugarren edizioa, probalekuan



Deneriko eskaintza ipiniko dute aukeran Berrizko probalekuan.

Aukera Azokaren hirugarren edizioa ospatuko dute zapa-tu honetan Berrizen, herriko merkataritzari bultzada emateko asmoz. Berrizko Merkatarien Elkarteak antolatzen du ekimen hau, udalaren laguntzagaz. "Merkataritza eguna" izenez ere ezagutzen da jardunaldi hau.

Goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak azokak, probalekuan. Arratsaldeko 19:00ak arte herriko merkatarien produktuak ezagutu eta erosteko aukera egongo da bertan: arropak, loreak, burdindegiko objektuak, boutiqueko eta

Goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak azokak, probalekuan, eta 19:00ak arte egongo da zabalik

Guztira, hamaika komertziok ipiniko dute salmenta-mahaia; deneriko eskaintza egingo dute merkatariek

optikako produktuak... deneriko eskaintza egingo dute merkatariek.

Guztira, 11 komertziok ipiniko dute salmenta-mahaia: Kimu loradenda, Keiñu optika, Ibai-Ondo burdindegia, Asibar arropa denda, Ana mertzeria, Luisa boutique, Mikos, Pingu, Salkin kirol denda, Txiki-Txiki eta Txaparro denda.

Aurreko bi udatan ere antolatuko dute azoka hau Berrizen, eta aurrean, gainera, neguan ere egin dute. Herrian jai-giroa sortzea ere helburuen artean dute antolatzaileek. ■ M.Onaindia

Udalekuak martxan, 230 gazteren parte-hartzeagaz

Astelehenean hasi ziren udalekuak, eta uztailearen 22an amaituko dira

Guztira, 230 gazte eta 35 begiralek parte hartuko dute aurtengo udalekuan. Learreta-Markina ikastetxean eta Gaztelekuan antolatuko dituzte udalekuetako ekitaldiak; hiru urteagaz hasi eta 16 urtera arteko gazteek eurei egokitutako ekintzak izango dituzte aukeran egunotan.

Haur Hezkuntzakoek animatua motak ezagutzeko ekintzetan parte hartuko dute. Lehen Hezkuntzakoek, berriz, ohiko tailer eta jokoek aparte Markinako txorroe-

230 gazte eta 35 begiralek parte hartuko dute aurtengo udalekuan

Learreta-Markina ikastetxean eta Gaztelekuan antolatuko dituzte ekitaldiak

tara irteera, Lekeitioko itsasargia ezagutzeko bidaia eta Gorlizen Surf ikastaroan parte hartzeko aukera izango dute.

35 gazte Gaztelekuan Gaztelekuan lehenengoz antolatuko dute udaleku irekia, eta erantzuna "oso ona" izan da; DBHko 35 gazte eman dute izena. Esperientzien artean, Zarautzen surf egiteko ikastaroa, Mundakan gaubela bi egitea eta saiheski jana prestatzea izango dituzte. ■ M.O.

IURRETA

Enpresa proiektuak sustatzeko laguntza

Enpresa Proiektuen III. Lehiaketa abiatu dute; urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke eskariak

Herrigunean enpresa berrien jarduna sustatzea helburu duen Enpresa Proiektuen III. Lehiaketa ipini du martxan Iurretako Udalak. Enpresa edo denda sortuz lanean hasi gura dutenei "bidea erraztu" gura diete. Eskariak aurkezteko epea urriaren 31 bitartean

Herrigunean enpresa berrien jarduna sustatzea du helburu udalaren lehiaketak

Irabazleak 9.000 euroko saria lortuko du; diru hori zatika banatuko dute

dago zabalik eta irabazleak 9.000 euro lortuko ditu.

Herrigunean enpresa kokatu gura duten pertsona fisiko edo juridikoek (enpresa txiki edo ertainek) dute aukera euren ideia aurkezteko. Jarduera lizentziak ematerakoan sariaren % 20 emango diote irabazleari, zabalteko baimenagaz % 50, eta beste % 30 urtebeteko epean.

Sustatzaileak bertan erroldatuta egotea, originaltasuna eta familia eta lana uztartzeko susta-neurriak hartuko dira aintzat. Baita Herriko ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumenean ekarpena egitea ere. 2009an Anboto komunikabideak izan zen irabazle; iaz, berriz, AL-Arquitectora enpresa. ■ A.B.

Jaiak iragartzeko hamar kartel aurkeztu dituzte

Ibarretxe kultur etxean daude ikusgai; bertan eman daitezke botoa gustuko kartelaren alde

Ibarretxe kultur etxean daude ikusgai Sanmigelak iragartzeko aurkeztutako 10 kartelak. Gaur izango dute azken eguna bertan, Jai Batzordeak jakinarazi duenez, eta herritarrek bata edo bestearen alde egiteko aukera izango dute. Aukeratutako kartelaren egileak 500 euroko saria lortuko du.

Irailaren 28tik urriaren 2ra bitartean ospatuko diren jaiak

iragarriko dituen kartela zein izango den astelehenean bertan jakin eragingo du Iurretako Jai Batzordeak. ■ A.B.

Jai Batzordeak astelehenean jakin eragingo du kartel irabazlea zein den

ATXONDO

Udalak herritarren babes falta salatu du, berriz ere

Ekainaren 30ean bi teknikari aurkitu zituzten baimenik barik neurketa topografikoak egiten

AHTaren eraikitze obretan, ADIF-ek eta enpresa azpikontratatuak izandako jokaera "maltzur eta irregularra" salatu du Atxondoko Udalak, prentsa ohar baten bidez.

Oharraren arabera, ekainaren 30ean bizilagun batzuek bi teknikari aurkitu zituzten lursail batzuetan neurketa topografikoak egiten; lursailen ugazaben baimenik barik zebiltzan neurke-

ta egiten. Hauek, udalaren baimenagaz ari zirela esan zuten. Udalak, berriz, gezurtatu egin du bertsio hori: "Udalak ez du eman lan horiekin zerikusia duen ezelako baimenik". ■ A.M.

Udalak "erantzunkizunez" jokatzeko eskatu die AHTaren arduradunei

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Enfitecnia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
Dreko zinaua

KOART 509

Sukaldeak • Bainugelak • Horma-armairuak



Tel./Faxa: 94 682 68 79 • Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

ELORRIO

Eskapararte, "merkataritza, kultura eta ikusleak batuz"

Herriko argazkilarien lanak ikusgai 19 dendatan, abuztuaren 31ra arte



Bigarren urtez jarraian, komertzioetan herriko argazkilarien lanak egokitu dituzte.

Elorrioko Argazki Taldeak Eskapararte ekimena antolatatu du, bigarren, Elorrioko Merkatarien Elkarteagaz batera. EATEko 19 argazkilarien lanak ipini dituzte ikusgai EMEko 19 komertzioen kanpoaldean. Abuztuaren 31ra arte iraungo du erakusketa berezi honek.

Iaz erakuslehoetan ipini zituzten argazkiak eta aurreko den-den inguruko hormak erabili dituzte argazkiak egokitzeko. Argazki taldekoek azaldu dutenez, ekimenagaz "gune artistikoa" sortu gura dute, "merkataritza, kultura eta ikusleak batuz". Diotenez, "udalerriko kale historikoa erakuske-

ta gela bihurtu" gura dute, "komertzioak, argazkien euskarri gisa erabiliz". Erakusketaren gaia libre da: "Ikusgai egongo diren argazkilarien lanetan, bakoitzaren ikuspuntuak eta sentsibilitateak nabari dira".

Udal bulegoetan, kultur etxean eta komertzioetan mapa edo gida bat egongo da eskuragarri. Ibilbide honek ikusle Elorrioko kale historikoetan ibili eta argazki-puntuagaz markatutako komertzioak aurkitzera eroango du, antolatzaileek adierazi dutenez.

Ferixa Nausikoetako kartela
Bestalde, badakigu dagoeneko zer kartel izango den irailaren 2tik 11ra iraungo duen aurtengo Ferixa Nausikoetako irudia. Libe Mimenza elorriarra izan da lehia-ketako garailea.

Guztira, 17 kartel aurkeztu dituzte 10 parte-hartzailek, eta horien artean *Errezeta onena* izenburupean aurkeztutakoa aukeratu du epaimahaiak. Barazkiak ditu protagonista irudiak, "jaiei izena ematen dioten feria gogora ekarritz". ■ M. Onaindia

"Udalerriko kale historikoa erakusketa gela" bihurtu gura dute argazki taldekoek

Udal bulego, kultur etxe eta komertzioetan mapa edo gida bat egongo da eskuragarri

Zengotitabengoa gose greban eta Aristegi kalean

Andoni Zengotitabengoari babesa agertzeko Portugalera martxa irtengo da gaur Elorriotik

Adur Aristegi gazte elorriarra aske geratu da asteon, 10.000 euroko bermea ordaindu eta gero. 2010eko otsailean atxilotu zuten Gironan; beste lagun bategaz zihoala eta, polizia lagun horri ihes egiteko laguntza ematea leporatzen dio. Atxiloaldian torturatua izan zela salatu zuen Aristegik; Aranjuezen egon da preso.

10.000 euroko bermea ordaindu eta gero geratu da aske Aristegi

Bestalde, Andoni Zengotitabengoa Portugalen preso dagoen elorriarra bere bizi-baldintzak salatzen gose grebari ekin dio, hirugarren biderrez. Diabetikoa da, eta egoera gaitzean aurkitzen dela azaldu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Babesa emateko, martxa irtengo da gaur Elorriotik Portugalera joateko.

Portugalen dagoen euskal preso politiko bakarra da; 14 hilabeteotan bakarturik izan dute. Salatu dutenez, alabekin urtean behin bakarrik egoteko eskubidea dauka, besteak beste. ■ M.O.

Balendin Berrio-Otxoa gogoan, uztailearen 4an

Agintariak kalejira egin zuten astelehen goizean



Agintariak Udaletxetik basilikara bidean. Juanra de la Cruz.

Eguraldia lagun ospatu zuten, astelehenean, Balendin Berrio-Otxoa eguna. Ohi legez, kalejira egin zuten udal agintariak Udaletxetik Sortzez Garbiaren Basilikara, eta meza nagusia amaitu ondoren luntxa ere antolatu zuten Berrio-Otxoa kalean.

Elorrixa ekologia taldeak eratu, XV. Azoka Ekologikoa burutu zuten San Pio kalean. Eskualdeko eta Bizkaia osoko nekazarien produktuak izan zituzten eskura bertaratu zirenek.

Elorrixa ekologia taldeak eratu, XV. Azoka Ekologikoa burutu zen San Pio kalean

Arratsaldetik aurrera, afizionatuen pilota partidak eta Musikairenen baitako Niño Costriniren ikuskizuna izan ziren. ■ M.O.

ZALDIBAR

Bilduk izango du lehendakaritza informazio batzorde guztietan

Ezarritakoa baino % 12 gutxiagoko soldata jasoko du Baigorri alkateak

Zazpi batzorde eratu dituzte Zaldibarren, aurreko legegintzaldian baino bat gehiago. Arantza Baigorri alkateak Euskara eta Hezkuntza batzordeak gidatuko ditu; Karmen Sampedro lehenengo alkateordeak Ongizatea, Osasuna eta Migrazioak; Jose Andres Urizarrek Hirigintza, Ingurunea eta Auzoak; Olaia Araucak Berdintasuna eta Gazteria; Rafa Urizarrek Kultura eta Kirola, eta Aitor Arizmendiarek Ondasunak, Ondarea, Pertsonala eta Kontuak.

Udalbatzak 19:00etan egitea ere onartu dute, hile biko maiztasunagaz; orain arte eguerdian

egin izan dituzte. Bildukoek adierazi dutenez, "herritarrek parte hartzeko aukera izan dezaten" proposatu dute aldaketa.

Udalbatzarrak 19:00etan izatea onartu dute, hile biko maiztasunagaz

"Herritarrek parte hartzeko aukera izan dezaten" proposatu dute ordu aldaketa

Bestalde, Bilduk EAJko Nerea Garitagoitiari Tokiko Gobernu Batzordean parte hartzea proposatu dio, baina honek oraingoz ez du erantzunik eman, bere ustez aztertzeko "denbora gutxi" eman diotelako. Alkatearen jardun osoko liberazioa ere onartu dute, Bilduren aldeko botoekin eta gainerako abstentzioagaz. 44.394 euroko soldata jasoko du Baigorriko urteko.

Amankomunazgora Arantza Baigorri, Karmen Sampedro eta Nerea Garitagoitia joango dira, eta gainerako ordezkariak Bilduk beteko ditu. ■ M.O.

IZURTZA

Udaleko batzordeen osaketa eta izendapenak

Aurreko legegintzaldian legez, bost batzorde mantentzea onartu zuten udaleko ordezkariak

Bildu alderdiko gobernu taldeak egindako proposamenek egin zuen joan zen eguneko udalbatzarrean aurrera: besteak beste, Luis Jose Ballarin alkatearen lanaldi erdiko liberazioa, aurreko legegintzaldiko ordezkarien dietak mantentzea, eta batzorde buruzak Bilduk hartzea onartu zuten eguneko plenoan.

Pleno eta batzordeetara kale egiten duten ordezkariak penalizatzen proposamena

Abstenitu egin ziren gobernu taldearen proposamen honi dagokionez jeltzaleak: udalbatzar eta batzordeetan parte-hartzeagatik dietak jasotzen dituzten moduan, batzarretara kale egiten duten zinegotziak penalizatzea proposatu zuen Bilduk. Pleno batera faltatzeagatik 50 euro, eta batzordeetan kale egiteagatik 30 euroko zigorra izango dute Izurtzako udaleko zinegotziak.

Udalbatzar horretan izendatu zituzten bestalde, Bilduko Luis Jose Ballarin alkate eta Maialen Sarasua alkateorde, eta EAJko Oskar Zarrabeitia diruzain. ■ I.E.



Durungaldean labor

Artekalen okupatutako etxean arriskua dagoela dio PSE-EEK

Hirigintza Batzordea urgentziaz batzeko eskatu du PSE-EEK, Artekaleko hainbat auzokideren kexen ondoren. Artekalen okupatuta dagoen etxe inguruan "keroseno usain handia" dagoela adierazi dute auzokideek, eta "egoeraren aurrean udalak neurriak hartzea urgentea" dela iritzi dio Pilar Rios zinegotziak. Iazko azterketa batean eraikinaren egoera "oso arriskutsua" zela ondorioztatu zela gogoratu du.

Umeen bedeinkapen eguna, domekan, Urkiolan

Umeen bedeinkapen eguna izango da Urkiolan domekan. 12:00etan (meza nagusia), 13:00etan eta 18:00etan emango dituzte mezak eta bedeinkapenak. Bestalde, uztailearen 17an ezkonduen eguna ospatuko dute Urkiolan. 12:00etan hasiko da meza. Zilarrezko eta urrezko ezkonduen omenaldia egingo diete. Ondoren, musika eta luntxa egingo dituzte.

Esklerosiaren kontra, *Busti zaitez!*

Esklerosi anizkoitzaren kontrako kanpaina abian da aurten ere. Gure eskualdean Abadiño, Berriz, Durango eta Elorriok bat egin dute *Busti Zaitez!* lelopean egiten den ekitaldiagaz. Euskal Herriko hainbat igerileku eta hondartzatan egingo dute sentsibilizazio ekitaldia igande honetan.

Udako dantzaldiak Ezkurdi plazan

Uztaileko igande denetan, 19:00etatik 21:00etara, Durangoko Udaleko Adinekoen Sailak, antzinako dantzaldiak gogoratuz, udako lau dantzaldi antolatuko ditu (txitxarriok), Ezkurdi plazan, hainbat orkestragaz. Euria eginez gero, Azoka plazan izango dira ekimeneko dantzaldiak.

ABADIÑO

Auzoko jaiak Mendiolan, gaur hasi eta asteburu osoan

Jai batzordeak antolatu du gaur, bihar eta etziraiko jai egitarau oparoa

Domeka eguerdira arteko egitaraua gozatzeko aukera izango da asteburuan Mendiola auzoko San Kristobal jaien harira. Ohiturazko hainbat

Kontzertua, erromeria, bertso saioa, txapelketak, dantza emanaldiak, herri-bazkaria...



Gaur arratsaldetik, jaietan daude Mendiolan.

ekitaldigaz emango diote jaiari amaiera domekan: dantza emanaldia, gaztai, ogi eta ardo banaketa, eta errifa zozketa egingo dituzte.

Domekara arte, baina, gaur arratsaldean hasita, kontzertuak, txapelketak, umeentzako jolasak, bertso saioa, kotxe klasikoaren erakusketa eta erromeria ospatuko dituzte, besteak beste.

Igor Elortza eta Iker Zubeldia bertsolariak jardungo dute biharko bazkalosteko saioan

Durungaldeko Ghetto eta Trastorno taldeen, eta Kojón Prieto y los Huajolotes taldeko kide ohiek sorturiko Los Zopilotes Txirriaos nafarren kontzertuak izango dira, esaterako, 23:00etan hasita gaur. Uztailearen 9an, Igor Elortzak eta Iker Zubeldiak jardungo dute bertsotan. ■ I.Esteban.

Traba arkitektonikoak konpontzeko diru-laguntza

Eraikinetan traba arkitektonikoak konpontzeko eta igogailuak edo arrapalak jartzeko laguntza

Herriko etxebizitza eta eraikinetan traba arkitektonikoak konpontzeko diru-laguntza atala bideratuko duela jakinarazi du udal gobernu taldeak. Azaldu dutenez, gehiezin 10.810 euroko diru-laguntza

Mugikortasun urriko eta 60 urtetik gorako bizilagunak dituztenek dute lehentasuna

jasoko du eskatzaile bakoitzak; euren etxeetan obrak burutzeak dakartzen gastuen % 20ko diru-laguntza emango du udalak.

Igogailuak, arrapalak edo eskailera-igogailuak ipintzeko gastuen parte bat hartuko du bere gain udalak, eta hamar urte baino gehiago dauzkaten eraikinak egokitzera bideratuko dituzte laguntzak. Mugikortasun urriko eta 60 urtetik gorako bizilagunak dauzkaten komunitateek lehentasuna izango dute udalak bideratuko dituen laguntzok jasotzeko. ■ I.E.

DURANGO

170 babeseko zotz egin dituzte San Roken

Eguaztenean egin zuten zozketa; salmentarako 144 etxe eta alokairurako 26 zozkatu dituzte

Zozketako emaitzak www.etxebide.info web gunean daude honezkerero. San Roke auzoan eraikitzen hasiko diren etxebizitzak zozkatu dituzte eguazten honetan. Guztira, 170 etxebizitza zozkatu dituzte; 144 salmentarako eta 26 alokairurako.

Landako polikiroldegian egindako zozketara 200 pertsona inguru gerturatu zen emaitzak bertatik bertara ezagutzeko.

Eraikuntza lanak

Salmentarako 144 etxebizitzak saihebidierantz doan errepide alboan eraikiko dituzte. Bloke

simetrikoko bi izango dira eta urtearen hirugarren hiruhilekoan hasiko dituzte beharrak. Horrela aurreratu du Visesa Eusko Jaurilaritzaren etxebizitza eta lurren erakunde publikoak.

Alokairuko 26 etxebizitzak, berriz, Aramotzen eraikiko dituzte, Eroski supermerkatuaren alboan. ■ A.U.

Zozketako emaitzak 'www.etxebide.info' web gunean daude ikusgai

Zubillagari omenaldia egingo diote eguaztenean

CCOO sindikatuaren bulego pareko plazan, Mendizabal plazan, egingo diote omenaldia Jose Luis Zubillaga "Zubi"-ri datorren eguaztenean. Ezker Batuko eta CCOOko kidea izan zen Zubillaga hainbat urtean. 18:30ean hasiko dute bere omeneko ekitaldia.

CCOOko arduradun Roberto Martinek adierazi du Zubillagari "bete ezineko hutsunea" utzi duela. Lan-osasun arloan egindako lana nabarmendu du, eta "zintzotasunaren eta elkartasunaren eredu" dela esan du. ■ A.U.

Ikastetxeek 6.180 euro batu dituzte Pochutarako

Bateginez GKEak eskualdeko 14 ikastetxetan *Ikasle bat, konpromiso bat* kanpaina antolatu du, eta 6.179,75 euro batu ditu. Diru hori GKEak San Miguel de Pochutan (Guatemala) daukan farmazia mantentzeko erabiliko dute.

Pobrezia zero

Udalagaz eta Zubiguneak tailleragaz *Pobrezia 0* kanpaina abiatuko du laster Bateginezek. Astelehenean eskualdeko elkarteak Sartuko lokalean batzartzera deitu dituzte, 18:30ean. ■ A.U.

BERBAZ>

“Euskarazko hedabideek erdarazkoek baino hobeto ematen dute informazio bera”

1980ko hamarkadatik hona albistegintzaren kalitatea eskatu egin dela ikusi du Maria Gonzalezek bere tesian



Maria Gonzalez •

- Durango (1978). Mallabian bizi da orain.
- Zuzenbidean eta kazetaritzan lizentziatua. Komunikazioan doktorea.

barik zeukala”. Horrek ez du ezelako informaziorik ematen, ez bada *España Directora* rako gaia. Baina albistegietan gaiak serio landu behar dira; gizartean parte hartzeko gakoak eskaintzen dira, eta hori ezin da arinkeriagaz egin. ETB2n Espainiako kateen eragin handiagoa ikusi dut ETB1en baino; azken finean, erdarazko katea erdal mundura begira dago.

“Espainiako hedabideek gehiago eragiten diote ETB2ri ETB1i baino”

Kazetari lanaren prekarietateak zerikusia edukiko du gai honetan...

Bai, horrek eragiten du; langileek albiste gehiago sortu behar izaten dute beste lanpostu bat ez dadin sortu. Torlojuen moduan albisteak sortu ditzakezu, baina ez dituzte albiste izateko ezaugarriak. Ahulezia berak dituzte tokiko komunikabideek eta nazio mailakoak: komunikazio kabineteen dependentzia eta albisteak sortzeko geroago eta zailtasun handiagoa, ez bada albisteak sortzen dituzten erakundeetara jotzen.

Zelan ikusten duzu hemendik aurrerako bidea?

Honi konponbidea ipini ezean, gelditzea gaitzagoa izango da. Baina horretaz jabetzeko gaitasuna badaukagu. Filosofo batek esaten zuen legez, arazoa identifikatuta badaukazu eta konponbiderik ematen ez badiozu, ez dakizunean baino txarrago zaude. ■ A.Ugalde

Euskarazko albistegintzaren kalitateari buruzko tesia aurkeztu berri du Maria Gonzalez kazetariak. Euskal Herrian gehien kontsumitzen diren hedabide erdaldunekin alderatu ditu ETB1ek, Euskadi Irratiak, Euskaldunon Egunkariak eta Berriak azken urteotan egindakoak. Tesiagaz Bikain cum laude kalifikazioa lortu du Gonzalezek.

Euskarazko eta erdarazko komunikabideen albisteen kalitatea aztertu duzu. Zerk mugitu zintuen gai hori aztertzeraz?

Euskarazko albistegintzaren gainean konplexu lako bat dagoela ikusten nuen. Erdarazko hedabideek beti egituratu dute euren albistegintza profesionalagoa delakoan, eta gurea amateurragoa, euskaraz bakarrik jarduten dugulako. Tesiaren bidez ikusi dut hori oinarri bako ustea dela. Egia da Espainian oso komunikazio talde indartsuak daudela, baina albisteen kalitatean, informazio bera euskarazko hedabideek hobeto ematen dute.

“Erdarazko titularretan horikeria gehiago egoten da”

Zelan neurtu daiteke albisteen kalitatea?

Hamar adierazle erabili ditut nire lanean: bost adierazlek neurtzen dute albistea zelan heldu den erredakziora; dokumentua, izenik ez duen pertsona bat, izan daiteke iturria agertu ere ez egitea... Informazioari kazetariak zer gehitzen dioten ere hartu dut kontutan; titulua emateko modua –erdarazko kazetaritzak horikeriarako joera handiagoa du–, zenbat ikuspegi agertzen den, albistea laguntzeko grafikoak, argazkiak, irudiak, irratiko korteak... eta hizkuntzaren kalitatea.

“Albistegietako gaiak ez dira arinkeriagaz landu behar; gizartean parte hartzeko gakoak eskaintzen dituzte”

Zer desberdintasun ikusi duzu euskarazkoen eta erdarazkoen artean?

Ikuspegi kopuruan eta gertutasunean hobeto ikusi ditut euskarazko komunikabideak. Albisteen lanketan, baina, euskarazkoek puntuazio nahiko baxua izan dute. Orokorrean geroago eta jaramon gutxiago egiten zaio albisteen lanketari. Sarri kanpotik etorritako informazioa ia tratatu barik ematen dute: komunikazio kabineteen bozgorailu dira. Kazetariak iragazki bat pasatzen ez badute, publizitate hutsa egiten dute. Adibide bat: Espainiako hedabideek, 2008an esan zuten Espainiako Erregeak ez zuela 2009ko aurrekontuan diru gehiago kobratuko. Kontua da Espainiako Erregeari urteroko diru kopuruan KPIa igotzen diotela, eta 2008an KPIa zero izan zela. Hori jartzen ez baduzu, ematen du Espainiako Erregea

itzeleko esfortzua egiten dabilela bere herrialdean krisia dagoelako, baina publizitate da.

Asko aldatu da bertako kazetaritza azken urteotan?

1980ko hamarkadatik hona okerrera egin du albisteen kalitateak. Hasteko, kultura gaiak gutxiago jorratzen dira. Protagonistei dagokienez, gizarte mugimenduak albistegietatik desagertu dira, eta administrazioa izaten da protagonista, edo hondamendi naturalak eta ezbeharrak lako gertakizunak. Sorterria hirugarren kontua da; lehen Euskal Herriko zazpi lurraldeetako albisteak ematen ziren, bertoko ikuspegia zegoen. Orain nazioarteak pisu handia du, eta heltzen zaizkigun albiste gehienak AEBetakoak dira. Horrek gure nortasunean eragiten du, eta, gainera, gure nortasunaren inguruko albisteek kaltetuta irten dute.

Arinkeria ere aipatu duzu...

Askotan albistegiei amaiera barregarri bat ematen zaie, bideo entretenigarri batekin; “Rubalcaba ez da konturatu prentsaurrekoan korbata lotu

Gremioen gida

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

berriozabaleta
Iturgintza • Berokuntza
gremioen koordinazioa
jose miguel acedo
mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK
SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK
Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com
Panasonic

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Soloaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
URBASA@URBASATEL.COM

urtiaga
gremioen koordinazioa
BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK
Eulego eta komunitate mantentimendua
Otra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak
Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

DEKORAZIOA

a-metz
barnediseinua
Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak
www.a-metz.com
Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak
Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

AROTZERIA

EGUIA s.l.
AROTZEGIA
• GREMIOEN KOORDINAZIOA •
Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653
Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@corpinferioeguia.com

sagasta
ITURGINTZA
Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak
GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA
Sagasta auzoa, Arabe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

■ **Sei hankako mahaia**



Aitziber Irgoras
EAJ

Garaiko Triatloi Taldeari

Garaiko Triatloi Taldeak Saturraranen hasi eta Garaiko udal-
te ondoan amaituko zen triatloia antolatzeke asmoa zuela
jakin nuenea, n ur sakonegien murgiltzen ari ez ote ziren pen-
tsatu nuen. Proiektu handiegia hain talde mugatu eta espe-
rientzia bakoarentzako. Inoiz ekitaldiren bat antolatutakoa naiz,
eta badakit aurreikusitako ezin daitezkeen hamaika buruhauste
sortzen direla; edo lotu beharreko hari muturrak solte ikus-
teak logurea kentzeraino eragin dezakeela. Domekan Garai-
tik osteratxo bat egitea erabaki nuen, egunpasaren aitzakian
zer giro zegoen bertatik bertara ezagutzeko kuriositatez; eta
han ikusitakoaren ondoren, mezu hauxe helarazi nahi nioke
Garaiko Triatloi Taldeari: bejondeizuela!

Dakidaneraino ez zen ezusteko aldrebesik gertatu. Parte-
hartzaile guztiak inongo arazo barik aritu ziren igerian, bizikle-
tan eta korrika. Ekimena aurreikusitako legez garatu zen, eta hori
asko da. Azpimarragarria da, era berean, triatloiaren ondorioz
Garain sortu zen giro alai; ia jai-giroa zegoela esango nuke. Herri
txikietan —mendi tontorrean daudenetan are gehiago— oso
garrantzitsua da jendea (bertakoak zein edonongoak) erakarri-
ko duten ekimenak prestatzea; herria biziberritzen dutelako ber-
tara joanda edo mapan kokatzen dutelako edozein solasaldie-
tan erreferentzia eginez. Edozein kasutan, Garai garaile.

Ez dakit datorren urtean triatloiak jarraipenik izango duen.
Ez dakit horretarako indarrak batuko duten, baina lerro hauen
bitartez animatu egin gura nituzke datorren urtean ere antola-
tu dezaten. Triatloiaren balorazioa egitea eurei dagokie, eta alde-
ko eta kontrako arrazoiak balantzan ipini beharko dituzte. Aurre-
ra egitea erabakitzen badute Garai izango da irabazle nagusia.

Anartz Alonso (Zornotza)

Klik batean @



Gerediaga ingurua

Gerediatatik Garairako bidean espaloia egitea ideia
benetan ona izan da; asko dira handik paseatzen ibil-
tzen direnak. Baina kamioiek ertzak jotzen zituztela eta,
espaloia eta errepedea banatzeko ipinitako harriak ken-
du dituzte. Orain oinezkoak ez daude hain babestuta.
(Berdaitz Bereinkua)

Uztailean uzta

Azken udal hauteskundeetako
urekerrean behera egin dabe eta,
gorabehera guztien gaintik,
aurreko urteetan egindakoa eta
maiatzaren 22ko emaitzak kon-
tuan harturik, hausnarketa oroko-
rra egiteko garaia heldu da. Ez da
ahalegin hau proposamen zien-
tifikoa. Ezta gutxiago ere. Izatez,
ez naz hasiko gure eskualdean
izandako boto kopuruak ikertzen,
ezta alderdi batetik bestera (eta
bestetik batera) egon diren joan-
etorriak miazten. Gure iritziz, datu
horiek, zehaztasun eta ikerketa
guztiak ondo dagoz, beharrez-
koak dira alderdi politikoen estra-
tegiak eta ildo politikoa ezartze-
ko eta, kasuan-kasuan, horiek
guztiak egokitzeke, beharrezkoa
izanez gero, noski. Badagoz, egon
ere, kaleko jendeak, herriko kideek,
herriarrek egiten dabezan beste
hainbeste hausnarketak. Horiek
dira, gure ustez, une honetan inte-
resgarrienak, eta ondorio horie-
tariko batzuk batuko dodaz, oso
era xumean, idatzi honetara.

Lehenengoz, nabaria izan da
herriaren apustua aukera politi-
ko guztiek, aukera bardintasun-
ean, hauteskundeetan parte har-
tzearen alde. Orokorrean, horixe
izan da gure kale eta enparantze-
tan gehien entzun dan iritzia, eta
aintzat hartu beharreko oihartzu-
na dala uste dogu zinez. Bigarren,
estrategia ezkorren porrota ere
azpimarratu beharra dago. Gure
herrian azken lau urteetan behin
eta barriro ez, ez eta ez esan dabe-
nek ordaindu dabe hauteskun-
tzeetan estrategia errausle hori.
Beharbada, —ez dogu halakorik
ukatuko— lan egiteko modu
horrek etekinak izango ditu epe
laburrean hedabide batzuetan
baina, begi bistan dago, Duran-
garrok badakigu, jakin be, norkegi-
ten daben zer, eta argiago dauka-
gu etengabe ezetz esatea, liska-
rrean egunero mugitzea eta
prentsaurrekoaren politika soilik
egitea ez dala gure Uria eraikitzea.

Badago, amaitzeko, hiruga-
rren ondorioa: ikusi beharko
doguz aurrerantzean talde politi-
koek izango doguzan jarrera poli-
tikoak. Batzuek, egindako beha-
rrean finko oinarrituz, aurrera
egingo dogu eguneroko lanean,
betiko lez. Besteek... ikusi behar!

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten
izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak
jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko uztailaren 8a - 10. urtea - 423 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

MUSIKA > UDA KALEAN BIZI

Udaberrian Durangon perkusio tailerra ematen jardun duen Silvia Palumbo argentinarraren emanaldia da Uda Kalean Bizi jaialdiaren uztailearen 12rako proposamena. Kantautora argentinarraren sorkuntzak eta Hegoamerikako emakume musikarien kanten bertsoiak izango dira entzungai, eta Palumbok Durangon gidatu zuen perkusio tailerrean aritu ziren emakumeek ere hartuko dute parte.

“Emanaldi oso akustikoa” izango dela aurreratu digu Palumbo argentinarrak; besteak beste, Violeta Parra edo Consuelo Velázquez-en bertsoak eskainiko ditu. Esan digunez, “ikusuntu feminista batetik balio politiko handiena” daukaten autoreen kantak bere erara eskainiko ditu, gitarrak eta perkusioak lagunduta.

Jabekuntzarako tresna

Azken hilabeteetan Bizkaiko hainbat herritan eta Araban eskaini ditu Silvia Palumbo musikari argentinarrak perkusio tailerrak. Maiztean eta ekainean egon zen Durangon. Emakumeei zuzenduriko jabekuntza tailerrak dira eskaintzen dituenak; perkusioa, ahotsa eta mugimendu eszenikoak jorratzeko saioak.

Hiru saio burutu zituzten udaberrian Durangon, eta hamabost emakume inguruk hartu zuten parte, oinarria “energian eta partaideen arteko konexioan” daukan emakumeentzako tailerrean.

Emakumeen adierazpen kolektiborako baliabide moduan ulertzen ditu Palumbok perkusio tailerrok, eta emakumeak “bisibilizatu eta mobilizatzeko tresna politiko” moduan ere bai.

Aste honetan Xixon-en saioak ematen jardun ondoren dator berriro Durangora Palumbo, eta *Voces de Mujeres* izeneko ikuskizuna eskainiko du, uztailearen 12an, 20:00etan hasita, Etxezarreta parkean. Bere sorkuntzak eta “erre-



Silvia Palumbo kantautorea —laugarrena eskumatik—, eta perkusio tailerrean parte hartu zuten emakumeak.

“Emakumeen adierazpenerako baliabidea da perkusio tailerra”

Uda Kalean Bizi programazioaren barrukoa da uztailearen 12ko Silvia Palumbo kantautore argentinarraren emanaldia. Durangoko perkusio tailerrean ikasle izan zituen emakumeak ere gonbidatuko ditu oholtzara.

‘Voces de mujeres’ izeneko ikuskizuna eskainiko du Silvia Palumbok Durangon

ferentziazkotzat” daukazan Latinoamerikako emakumeen sorkuntzen bertsoak joko ditu.

“Kontzertu integratiboa” deitzen duenaren azken partean, munduko emakumeek pairatzen dituzten ezarpenei buruzko kantak eskainiko dituela azaldu digu

Silvia Palumbok. Hain zuzen ere, kontzertuaren azkeneko parte horretan gonbidatuko ei ditu oholtzara, udaberrian Durangon beragaz ikastaroa burutu zuten “danbor-joleak”, eta beragaz jotzeko Xixondik etorriko diren Tam Tam Bruxelles taldekoak.

Durangoko tailerrean parte hartu zuten emakumeek “sentsibilitate eta konpromiso handiagaz” jardun zutela azpimarratu digu, beragaz izandako elkarrizketan, Palumbok. Danbor arinekin, baxuekin eta kaxekin jardun zuten, eta lau erritmo ikasi.

Emakumeek espazio publiko hartzeko eta bisibilizazioa lotzeko era moduan ulertzen ditu Durangon eskaini zuena lako tailerrak Palumbok. ■ I. Esteban.

Piazzolaren doinuak eta tango dantzariak bihar

Uztailearen 12ko Silvia Palumbo kantautorearen emanaldiaren aurretik, uztailearen 9koa da Durangoko Uda Kalean Bizi programazioaren barruko hurrengo hitzordua: Argentinako tango doinuak eta dantzak izango dira bihar protagonista.

Bilboko Orkestra Sinfonikoan kide diren musikari bi tartean daukazan Tanar laukoteak ipiniko du bihar musika: Astor Piazzola bandoneonista eta konpositore argentinarra jaio zeneko 90. urteurrena dela-eta, haren

lanean oinarritutako emanaldia prestatu dute.

Durangoko Uda Kalean Bizi barruko saioan, zuzeneko musika eta dantza uztartuko dituzte Ezkurdi plazan, uztailearen 9an 20:00etatik aurrera.

Tanar laukotea musikan eta Joseba eta Bakartxo bikotea dantzari

Musika taldeak proposatuta, Joseba eta Bakartxo dantzari gipuzkoarrak arituko dira Tanar laukotearen tangoak dantzatzeko, bihar Ezkurdin.

Astor Piazzolak sortu zituen eran eta harek erabilitako instrumentuekin eskainiko du Tanar laukoteak kontzertua: bandoneona, pianoa, kontrabaxua eta biolina joko dituzte.

Emanaldiko bost kanta dantzatuko dituzte Joseba eta Bakartxo tango dantzariak: *Libertango*, *Chau Paris*, *Jeanne y Paul*, *Oblivion* eta *Zita*.

Elkarrekin dantza egiten 1999tik diharduen bikotea da Andoingo dantza eskola baten arduradun ere baden Joseba eta Bakartxo gipuzkoarrena.



Hamabost emakumek hartu zuten udaberriko perkusio tailerraren hiru saioetan parte

Emakumeentzako jabekuntza tresna legez ulertzen du musikariak perkusioa

MUSIKA > EMANALDIA

Cortesen gitarra doinuak, dantza flamenkoa eta kantua Musikairen, bihar

Diego Cortes maisuaren gitarra flamenkoaren erritmora, uztailearen 9an

Musikaire jaialdiaren barruan eskainiko du 1956an Bartzelonan jaio-tako Diego Cortes gitarristak kontzertua; 22:00etan hasita, bihar, Elorrioko Argiñetako inguru paregabe.

Orain hamar urte Albert Pla kantautore katalanarekin hasitako kolaborazioaren emaitzagaz izan zen Cortes otsailean Elorrioko Arriolan, eta bakarkako lanagaz datorkigu bihar. Bere gitarrak, dantzari bik eta kantariaren ahotsak lagunduta jardungo du Elorrioko Musikaireko biharko hai-zetarako emanaldian Cortesek.

Dantzari bik eta kantariak ere jardungo dute bihar Argiñetako Musikaireko emanaldian

Cortes Ruth Romerok dantzan zein kantuan eta Miranda Cortesek dantzan lagunduko diote Kataluniako gitarrista trebe eta esperientzia handikoari.

Flamenkoa beste musika batzuen sonoritateagaz —jazzagaz, bluesagaz zein funk-yagaz— uztartzen aitzindari izan zen Cortés, eta elektronika ere barneratu izan du bere sorkuntzetan. Erritmo biziko emanaldia eskainiko du Argiñetan.

2001etik Albert Pla-rekin ere aritzen da Cortes; otsailean izan genituen biak Arriolan



ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

Oporretako argazki lehiaketa antolatu dute Udal Liburutegian

Oporrei buruzkoa da Zaldibarko Liburutegian lehenengoz antolatu duten argazki digital lehiaketa. Irailaren 15era arte aurkeztu daitezke lanak

Egilearen nahiaren eta gustuaren arabera, zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek argazkiak. Lanak JPEG formatuan aurkeztu beharko dituzte, derrigorrez. Gehienez ere, aurtengo oporretan egindako argazki bi aurkeztu ahalko dituzte argazkizale bakoitzak lehiaketara.

Parte hartzeko interesa daukatenek liburutegia@zaldibar.org helbidera bidali beharko dituzte euren proposamenak; aurkezten duten argazki bakoitza mezu elektronikoko bati itsatsia, eta egilearen izen-deiturak, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren izenburua eta kokapena adierazita bidali beharko dituzte.

Lehiketan parte hartzeko, euren argazkiak herriko udal liburutegiak lehenengoz

Zaldibarko Ilargi argazki taldeak osaturiko epaimahaiak erabakiko du sariak nori eman

Hogeita hamaika lagunek hartu zuten joan zen asteburuko Argazki Rallyan parte

antolatu duen lehiaketara bidaltzeko, uztailearen 1etik irailaren 15era arteko epea izango dute interesa daukaten guztiak.

Zaldibarko Ilargi argazki taldeak osaturiko epaimahaiak erabakiko du lehiaketako bi sariak zer parte-hartzailek merezi dituen: 100 euroko lehenengoa eta 50eko bigarren saria banatuko dituzte.

Joan zen asteburuko rallya

Hogeita hamaika lagunek hartu zuten parte joan zen domekarako Ilargi argazki taldeak antolatu zuen argazkizaleei zuzenduriko urteroko lehiaketaren hitzorduan.

Uztailearen 15ean egingo dute lehiaketaren sari banaketa, eta orduan banatuko dituzte partaide bakoitzak aurkeztu dituen sei argazkietatik epaimahaiak onen iritzien argazkigien egileei sariak.

Aurten *Zirkulua*, *Ogia*, *Goitik behera* eta *Maisuen etxea* gaiak emanda eta argazkilariak gai librean egindako beste bi argazki aurkeztu dituzte argazkizaleek.

Ilargi taldeko antolatzaileek esan digutenez, zaldibartarrak izan dira aurten ere uztailearen 3ko Argazki Rallyan parte hartu duten argazkizale gehienak. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza Bertsolaria

Auzorik auzo

Hamaiketan meza. Hamabietan dantzariak. Hamabi eta erdietan talo eta txorizo dastaketa. Ordubatean bertsolariak. Hiruretan baba-jana. Bos-tetan herri-kirol erakustaldia. Seiretan bolo txapelketa eta haur jolasak. Azkenik, eguna ondo borobiltzeko, erromeria.

Euskal Herriko edozein auzo txikitako jai egitaraua izan leiteke hau. Oñatiko Araotzetik hasita, Bolibar-ko Ziortza edo Lesakako Otsangoraino zabaltzen dira ermitetako kanpai hotsak eta trikiti doinuak. Bertsolariok, horrelako makinatxo bat txoko ezagutzeko aukera izaten dogu sasoi honetan. Batzuetan, badirudi denboran atzera eginda, titular handiz jositako garaietatik *Kutsidazu bidea* *Ixabel* edo antzeko filmeren bateko eszenetara jauzi egiten dogula.

Gonbidapen berezia egin gura neuskie jairik jai ibiliko direnei, inguruko eta norbere herriko auzoetara be heldu daitezten

Jende askok, tradizionalaren etiketa jarriko deutse beharbada 'San dena delako' honeen guztien ospakizunei, baina ezin da ukatu halako magia berezia be badaukienik.

Gure auzoetako jaietan, seguruenik ez da egongo kontzertu jendetsurik edo karpa erraldoirik; baina beste modu batera bada be, zer ikusia eta zer egina bai.

Gazteok, ostera, domekakalendariotik ezabatzen doguzela emoten dau sarritan, edo, saguzaharren moduan gauez, baino ez dogula irten. Udaldiaren lehenengo txanpa honetan, gonbidapen berezia egin gura neuskie egunkariko agenda mapatzat harturik jarik jai ibiliko diren horreei guztiei, inguruko eta batez be norbere herriko auzoetara be heldu daitezten. Gozatu eta bueltara arte!

2012ko egutegiaren argazki lehiaketa hartu egizu parte!

Oinarriak: anboto.org

12 hile 12 herri

anboto komunikabideak



MUSIKA ETA ANTZERKIA > SAN ANDRES JAIETAN

Herriko sortzaileen lanen emanaldiak Zaldibarren

Gaur eta biharko, herriko musikarien eta antzezleen emanaldiak Zaldibarko jaietan

Orain urte bi Leioako Umorre Azokan aurkeztu zuen *Mortimer* bakarriketa eskainiko du Aritz Rodríguez aktore zaldibartarrak bere herriko Sanandres jaien barruan, Zaldibarko Gaztetxeak antolatu duen egitarauan. Uztailearen 9an, 23:00etan, eskainiko du emanaldia udaletxeko plazan.

Publikoaren parte-hartzeagaz, emanaldi bakoitza bakar egiten duen clown teknika baliatzen duen lana da Josu Camarak eta Gorka Zerok zuzenduriko *Mortimer*, eta Rodríguez da antzezlaneako aktore bakarra. Heriotzari buruzko gogoeta da antzezlane-

Orain urte bi estreinatutako Aritz Rodríguezek 'Mortimer' obra

Gaur 23:30etik aurrera eskainiko dute Disorders taldekoek kontzertua

koa: ikusleagan tristura zein barre-gura ere eragiten duena.

Disorders, gaur

Hil honetan Otxandio eta Garai-ko jaietan ere jo aurretik, bestalde, euren herriko publikoarentzat eskainiko dute Disorders taldekoek kontzertua. Zaldibarko Gaztetxean jaietarako antolatu duten egitarauaren barruan dago Disorders-ek eta Bizardunak iruinemeez gaur eskainiko duten zuzenekoak.

Iaz kaleratu zuten *Hitzak* izeneko bigarren diskoko kantak eskainiko dituzte zuzenean. Gaur, 23:30ean ariko dira Disorders eta Bizardunak taldeak. ■ I.E.



ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Arruabarrenaren argazki lanak Begira jaialdian, Ezkurdiko aretoan

Atzo izan zen Begira argazki topaketaren barruko azkeneko berbaldia: Begi handi kultur elkarteak duela bost urtetik Uribe Kosta eskualdean antolatzen duen Getxophoto jaialdiari buruz jardun zuten bultzatzaile eta antolatzaileek Durangoko Museoa.

Uztailearen 15era arte Ezkurdiko erakusketa aretoan: 'Kristolopania'

Begira jaialdiaren barruan hau ere, uztailearen 15era arte zabalik egongo da Jesus Mari Arruabarrena argazkilariaren *Kristolopania* izeneko erakusketa. Aldamenekoa bezalako argazkiak dituzue Ezkurdiko udal erakusketa aretoan bisitagai, Arruabarrenak jai herrikoietan eta erlijio ekitaldietan egindakoak. ■ I.E.



ZINEMA > EMANALDIA

Adineko kirolarien gaineko dokumentala

Uztailearen 14an 22:30ean egingo dute hil honetako dokumental emanaldia Elorrion, kultur etxean barik plazan

Udako ordutegi eta kokapenagaz antolatu dute uztaileko Hilean Behin dokumental zikloaren barruko emanaldia: uztailearen 14an, 22:30ean, herriko plazan burutuko dute emanaldia.

Olinpiar Jokoetan parte hartzea dute bost protagonistek helburu

Alemanian iaz ekoiztiriko filma da datorren egunean Elorrion ikusgai izango dena: 80 eta 100 urte bitarteko kirolariei eta euren ibilbidei buruzko *Olimpicamente grandes* izeneko dokumentala eskainiko dute.

Finlandiako atletismo joko olinpikoetan parte hartzea helburu duten adineko bost kirolari dira lanaren protagonistak: gale-

rak, krisiak edo gaixotasun larriak igarota, salto, korrika eta jaurtiketak egitera bideratzen dutenak euren bizitza.

Gizartearen zahartzearen eraginez, gero eta ohikoagoa den adineko kirolarien errealitatea erakusten duen dokumentala da hamabost urtez dokumentalak ekoizten jardun duen Jan Tenhagen zuzendariarena. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

eskatu ezazu **menu BONOIA**

ordaindu 9 menu eta 10 jan

1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10. dohainik

ABUZTUAN ITXITA EGONGO DA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

NOCHE DE TANGOS ARGENTINOS
Cuarteto Tanar + Joseba y Bakartxo
Ezkurdi plazan
Uztaileak 9 • 20:00

SILVIA PALUMBO
Abeslaria
Etxezarreta Parkean (Museoa)
Uztaileak 12 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean menu berezia 16 euro, 18e/ardoa, 20e/kriantza. Afariak egunero astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

KIROLAK >

Gogortasuna eta Agirresarobe protagonista Garaiko I. Triatloian

Garaiko Triatloi Taldeko kideak pozik agertu dira probak izandako harreragaz. Bestalde, joan den zapatuan distantzia olinpikoko Euskadiko Txapelketa irabazi zuen Fradesek



Agirresarobe irabazleak, 1 zenbakiagaz, probaren gogortasuna nabarmendu zuen helmugara helduta. Gorka Larrinaga

Garaiko Triatloi Taldea pozik agertu da probak izan duen harreragaz; joan den domekan, uztailaren 3an, jokatu zen bertako triatloia, lehenengoz. Guztira, 40 kirolari baino gehiagok parte hartu zuten bertan. Horrez gainera, bertaratu ziren dozenaka lagunek proba girotu eta kirolariak animatu zituzten.

Gizonezkoetan, Aimar Agirresarobe (Kraft Atletico S. Sebastian) izan zen helmuga zeharkatu zuen lehenengoa;

Aimar Agirresarobek alde nabarmenagaz irabazi zuen proba

Egoitz Zalakain eta Josu Uriarterek osatu zuten podiuma. Nagusitasunez gailendu zen Agirresarobe; Zalakaini lau minutuko aldea atera zion, eta Uriarteri, ostera, 20 minutu ingurukoa. Emakumezkoetan, berriz, hiru parte-hartzaile izan ziren. Raquel Lombo izan zen irabazlea, eta Mugarra taldeko Oihana Garcia bigarren postua eskuratu zuen; Mainer Oteizak, berriz, ez zuen proba amaitu.

Agirresarobek, guztira, 4:21:59 behar izan zituen proba

amaitzeko, eta nagusitasunez gailendu bazen ere, probaren gogortasuna azpimarratu zuen: "Oso gogorra izan da". Taldeko sailkapenean Garaiko Triatloi Taldeak bigarren postua lortu zuen; Mugarra durangarrek ostera, hirugarren denbora onena lortu zuten.

Lasterketa amaitu ondoren, sari banaketa egin zuten. Iluntzean, luntzaz gozatu zuten parte-hartzaile, antolatzaile eta gaitzakoek. Probak izandako harreragaz gustura geratu dira antolatzaileak, eta jadanik datorren urteko proban pentsatzen hasita ei daude.

Frades Euskadiko txapeldun
Bestalde, zapatuan, uztailaren 2an, Deba-Itzar Xtreme proba jokatu zuten; probaz gainera, distantzia olinpikoko Euskadiko Txapelketa zegoen jokoan. Gurutze Frades (Mugarra) iurretarrak lasterketa irabazi zuen; distantzia horretan Euskadiko txapelduna da, beraz. Gizonez-

Fradesek distantzia olinpikoko Euskadiko Txapelketa irabazi du

Datorren urtean proba errepikatzeko asmoa dute Garaiko kideek

koetan, ostera, Abadiñoako Laubideta taldeko Gorka Bizkarrak bigarren postua eskuratu zuen, eta Euskadiko txapeldunordea da maila horretan. Orain, euskal zirkuitua irabazte da Bizkarraren helburua. "Hiru lasterketa gertzen dira, eta horren arabera erabakiko da. Aukerak ditudala uste dut, eta horren bila noa". Orain artean, emaitza onak lortu ditu Bizkarrak parte hartu duen probetan. ■ A. Maldonado.



Bizkarrak lehenengo postuan joan zen kilometro batzuetan.

Giro aparta lurreta eta Leitza arteko pilota desafioan

Joan den zapatuan, uztailaren 2an, lurreta eta Leitza arteko pilota eskolek desafioa jokatu zuten lurretan. Valen Calleja Olaburuko arduradunaren berbetan, lurretako pilotalekuan bizitako giroa "itzela" izan zen. Partiduei dagokienez, iurretarrak izan ziren nagusi; umeen mailan, Andueza-Gonzalez bikoteak 22-14 irabazi zuen; kadeteetan, ostera, Calleja -Atxabal bikotea 22-17 gailendu zen Galarza eta Gartxiarenaren aurka. Gazteen mailan, ostera, nafarrak nagusitu ziren; Jaurarena eta Hernadorenak 22-10 irabazi zieten Bereinkua eta Maguregiri. ■ A.M.

Lejarreta Windhamen da, lehiarako prest

Iñaki Lejarreta berriztarra AEBetan dago. Munduko Kopako bosgarren proban lehiatuko da zapatuan. Iazko probako zirkuitua bera du probak, eta bere webgunean adierazi duen arabera, berriztarrek "gustuko" ditu horrelako probak. Txapelketa bereko laugarren proban 23. egitetik dator Lejarreta.

Joan den zapatuan jokatu zen Munduko Kopako laugarren proba; Kanadako St. Anne mendian izan zen lehia. Lehenengo itzulian, 44. postuan igaro zuen helmuga; hala ere, azkenean, hainbat lehiakide aurreratu ostean, 23. postuan amaitzea lortu zuen Orbea taldeko kideak. ■ A.M.

Kurutziaga Euskal Ligan mantenduko da

Federakundeak hainbat aldaketa egin ditu 2010/2011 denboraldian, eta horrek eragin handia izan du Durangaldeko taldeetan. Asteetan itxaroten egon eta gero Futbol Federakundeak batzarrean hainbat neurri onartu zituzten, tartean, Kurutziaga Euskal Ligan mantenduko dela erabaki zen. Berri onaren jakitun, Kurutziagako kideek entrentzailea eta babesleak bilatzeari ekin diote. Lehenengo Mailan, berriz, eskualdeko talde hauek arituko dira: Abadiñoako Gazte-txie, Dantxari, Elorrioko B, Sapuberri eta Scalibur. ■ A.M.

DRTk eta Arrasatek eten egin dute hitzarmena

lazko ekainean sinatu zuten bi taldeek hitzarmena, sendotzeko asmoagaz; hitzarmena eten arren, harreman ona mantentzen dute



Denboraldi bakarra iraun du DRT eta Arrasateren arteko hitzarmenak. A.Dominguez

Denboraldi bakarra iraun du DRT eta Arrasateko errugbi taldeek iaz sinatu zuten hitzarmenak. Akordioagaz, bi taldeak sendotu eta lehiakorragoak izatea bilatzen zuten; J.M Iriondo "Txapo" DRTko lehendakariak azaldutakoaren arabera, bi taldeek hitzarmena etetea erabaki dute.

Hasiera batean hiru urterako zen akordioa, eta etetea erabaki duten arren bi taldeen arteko harremanak "ona" izaten

onak. Horrenbestez, hitzarmena eten eta "bakoitzak bere aldetik" jarraitzea erabaki dute bi taldeetako ordezkariak. Emakumezkoen taldeagaz ere desadostasunak egon direla azaldu du Txapok.

Txaporen berbetan, "oso esperientzia ona" izan da ekimena: "Asko ikasi dugu elkarregaz behar egiten. Arrasatearrek zabalik izango dituzte hemengo ateak".

B taldeari buruzko ikuspegi ezberdinak dituzte bi taldeek

jarraitzen duela adierazi du Txapok. DRTko lehendakariaren arabera, desadostasunaren erroa senior mailako B taldean egon da. "Asmo ezberdinak izan ditugu", laburtzen du Iriondok; arrasatearrek lehiakortasuna bilatzen ei zuten, bereziki. Horrez gainera, emaitzak ez dira izan arrasatearrek uste bezain

11/12 denboraldia prestatzen Bestalde, datorren denboraldiari begira jarri dira durangarrak; hainbat aldaketa prestatzen ari dira 2011/2012 denboraldirako. Aldaketa horietako batek entrenatzaile postuan eragingo du. Aratz Gallastegik kadete edo gazte mailako talde bateko gidaritza hartuko du; Sukia errugbi eskolako arduradun ere jarraituko du. Iriondoren berbetan, neurri honen helburua txikiak gaztetatik trebatzea da: "Jokalariak txikitatik hezten saiatuko gara, horrela, senior taldera heltzerakoan prestatuago egongo dira". ■ A.M.

Txapo: "Hitzarmena eten dugun arren, harremana ona da"

Datorren urtean Gallastegik ez du A taldea entrenatuko

Hitzarmena eten arren aberasgarria izan da, Txaporen berbetan

Unai Zamalloa
•Saskibaloietrenatzailea



Datorren denboraldiari begira gaude

Bukatu da aurtengo saskibaloietrenaldia. Ezin hobea izan da. Bizkaia Bilbao Basket ACBko finalean ikustea gozatuz, nahiz eta finala galdu. Arlo pertsonalean, oster, beranduago bukatu zait denboraldia. Vigon egon naiz Kurutzia Ikastola-ko haurren mailako taldeagaz, Espainiako txapelketa jokatzeko. Esperientzia bikaina izateaz gain, Euskadiko txapeladunorde geratzea lortu dugu. Zorionak!

Orain oster, deskonektatzeko denborarik barik, hurrengo denboraldia prestatzen ari gara. Zoriontzat Saskibaloietaldeen denboraldia lotuta daukagu datorren denboraldiari begira: taldeak eratuta, entrenatzaileak, jokalariek, ... Guztia, amaitutako denboraldia hobetzeko helburuarekin. Klubak haztea nahi du eta horretarako lan gogorra, zehatza eta zentzuduna egin behar da.

Baina, guk, zorionez, lotuta daukaguna ez da eskualdean gertatzen ari dena. Gero eta zailagoa bihurtzen ari da klubentzat taldeak aurrera ateratzea, gehienetan entrenatzailea falta zaielako. Zergatik? Nire ustez, hainbat faktore dira honen errudun, baina bat da nagusia: gaur egun ez da erakargarria, askotan hutsaren truke lan eginda, talde baten ardura hartzea. Horrez gain, klubek ere ez dute erakargarri egiten, beraz, denon artean, aztertu beharko dugu hau guztia, hobetzeko, eskualdeko saskibaloietrenatzaileentzat.

Uda ona pasatu!

Adituarentxokoa

Ciclos Iturriagakoak, Bizkaiko txapeladun erlojuaren aurkakoan



Uztailaren 3an, Bizkaiko Txapelketako erlojuaren aurkako taldeko proban Ciclos Iturriagako neskek egin zuten denborarik onena; 25,05 minutu behar izan zituzten Elorrio-Zaldibar ibilbidea burutzeko. Ziortza Isasi, Goiatz Argoitia, Aiala Amesti eta Olatz Agorria lehiatu ziren Ciclos Iturriaga taldeak. Bestalde, goizean errepideko proba jokatu zen. 111 kilometroko ibilbidea burutu zuten txirrindulariek. Durangaldeko lehenengo sailkatuak Kepa Barrutieta eta Alain Ramirez izan ziren; 8. eta 10. amaitu zuten, hurrenez hurren. ■ A.M.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ez. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Parapente kontzentrazioa Elorrion, seigarren biderrez

Larrano parapente taldeak antolatu ohi du urteroko topagunea. Eguraldi txarra eginez gero, domekan egingo dute kontzentrazioa



Eguraldiak lagunduz gero, arratsalde osoa airean pasatzen du hainbatek. Iñigo Gabiria

Parapente kontzentrazioa deitu du biharko Elorrioko Larrano taldeak; ekimena ospatuko den seigarren biderra izango da zapatukoa.

Aurreko urteetan legez, urte osorako plana prestatu dute Larranoko kideek. Goizeko 11:00etan abiatuko dira parte hartzaileak Udaltxera; gailurra baino 500 metro beherago izango da aireratzea. Larranoko kide den Iñigo Gabiria azaldukoaren arabera, 13:00-14:00 bitartean hasiko dira parapenteak

hegan. Hegaldiaren iraupena eguraldiaren arabera izango da. "Egun ona eginez gero, arratsalde osoa igaroko du hainbatek airean" aurreratu du Gabiria. Hegaldia ez eze, lur hartzea ere baldintzatzen du eguraldiak. "Sanantonen edo Igurien izango da", dio Gabiria. Seigarren aldia du topagune honek, hala ere, parte-hartzaile kopurua "geldirik" dagoela aitortu du Gabiria; aurreko urteetan legez, 30-40 pertsonak parte hartuko dute ekimenean. ■ A.M.

40 lagun inguruk parte hartuko dute urteroko kontzentrazio honetan

Udaltxeko gailurretik 500 metrora egingo dute aireratzea

Berasaluze IX.a garaile Berrizko Oizpe pilota txapelketan

Joan zen zapatuan, hilaren 2an, Oizpe Txapelketako finalak jokatu zituzten. Nagusien mailan, Asier Berasaluze izan zen garaile; txapela etxean geratu zen, beraz. Finalean 22-17ko markagailuagaz irabazi zion Ander Antxia abadiñarrari. Berriztarra uneoro izan zen nagusi, eta sakea izan zen partiduko gakoa. Partidua Lau t'erdiko mugen barruan jokatu zen. Gainerako maila dagokienez, Durangaldeko pilotariek deneriko emaitzak lortu zituzten. 22 urtez azpikoen mailan, Gardoki durangarrak 22-5 menderatu zuen Etxaniz berriz-

Finalean, 22-17 irabazi zion Ander Antxia abadiñarrari

tarra. Kadeteetan, ostera, Ota- duy iurretarrak 10-18 galdu zuen finala, Zubikarai markinarren kontra. Gazteen mailan, berriz, ez zen eskualdeko ordezkariarik aritu; Agirre burlatarrak 22-16 irabazi zion Ale- giko Artolari.

Apirilaren 18an hasi zen Berrizko Oizpe txapelketa, eta ordutik ia egunero jokatu dituzte partidua Berrizburun. Guztira, 260 pilotarik parte hartu dute txapelketan. ■ A.M.

Agenda

PARAPENTE VI.KONTZENTRAZIOA

Udalaitzetik

Zapatuan, 11:00etan, Elorrioko plazatik.

XAKEA

X.SAN VALENTIN BERRI- OTXOA XAKE-AZKARRA

12 taldek parte hartuko dute

Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko kontseilupean

ARETO FUTBOLA

KULTURARTEKO II. FUTBOL TXAPELKETA

Euskal Herriko Ghana- ko Lagunak antolatuta

Zapatuan, 16:00-19:30 Domekan, 11:00-16:00 Tabiran

PILOTA

SANANDRES JIAIK

4 t'erdian

- Elezcano - Jaka Binaka

- Azpiri - Landaburu / Ansotegi - Diez

Gaur, 18:30ean, Olazar pilotalekuan

ARKUA

SANANDRES JIAIK

Arku erakustaldia ume zeln nagusientzat

Zapatuan, 10:00etan, Zaldibarko arku taldearen galerian

Taldekako X. Xake-azkar Txapelketa jokatu da bihar

Elorrioko Zaldi Baltza xake taldeak antolatu du. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da

Elorrioko Zaldi Baltza xake taldeak antolatuta, X. Xake-azkarreko Txapelketa jokatu da zapatuan, 16:00etan hasita; lau jokalarik osaturiko taldeek elkarren kontra jokatu beharko dute bost minutuko partidetan. Hamar urte hauetan txapelketa egonkortu den arren, azken

Faboritoak Zaldi Baltza, Abadiño eta S. Ajedrecistica dira

urteetako parte-hartze apalena izango du aurtengo txapelketa; "Urtero etortzen diren talde batzuek arazoak izan dituzte taldea osatu eta etortzeko" azaldu du Aitor Arabiotorre Zaldi Baltzako kideak. Aurten 11-12 talde arituko dira nor baino nor gehiago. Elorriokoaz gainera, Abadiño eta S. Ajedrecistica (Logroño) dira faboritoak.

Bestalde, Arabiotorre "pozik" agertu da taldeak eginko denboraldiagaz; A taldeak Bizkaiko Liga Gorenera igotzea lortu du, eta B taldea, ostera, Lehen Mailan arituko da datorren denboraldian. ■ A.M.



Zaldi Baltzak 2006 eta 2009ko txapelketak irabazi zituen.

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DURA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

AMALURRA[>]



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



La 30.000 etxetresna elektriko aldatu dituzte energia aurrezteko planean

Energia eraginkortasun teknologia duten aparailuek % 25 eta % 45 artean aurrezten dute energia

Etxekotresna mota aukeratzeaz gainera, tresnon erabilerak eragin handia du energia aurrezterakoan

Energia eraginkortasuna neurtzen duten etiketei begiratzea komeni da tresnak erosterakoan; A etiketadunak dira onenak

Energia gutxiago kontsumitzen duten etxetresna elektrikoak erosteagatik diru-laguntza eman du azken hileotan Eusko Jaurlaritzak, Plan Renovegaz. Hozkailuak, garbigailuak, labeak... efizientzia energetiko handiagoko aparailu berriengatik aldatzea da planaren helburua, eta, guztira, 28.667 etxetresna aldatu dituzte.

Energiaren Euskal Erakundearen arabera, etxetresna berriek zaharrek baino energia gutxiago -% 25 eta % 45 bitartean- kontsumitzen dute.

A etiketa

Planean aldatu dituzten aparailuek A energia etiketa daukate. Etxetresnak erosterakoan energiari dagokion etiketari begiratzea komeni izaten da. Efizientzia energetikoa neurtzeko A etike-

tadun aparailuek G motakoek baino energia gutxiago kontsumitzen dute. A motatako aparailuek A+, A++ eta A+++ aldaerak dituzte; azken horiek aurrezten dute energiari gehien.

Aholkuak

Etxeko tresna mota aukeratzeaz gainera, etxean energia aurrezteko aparailu horien erabilera ere garrantzitsua izaten da. Hona hemen hainbat aholku:

- **Ontzi-garbigailuei** dagokienez, guztiz betetzea gomendatzen dute, eta ur beroko hartunera ez konektatzea; energia gutxiago kontsumitzen da tresnak berak ur hotza berotzen badu.

- **Labea** erabili behar dugunean, errezetak horrela zehaztu ezean arinago berotzen ez ipintzeko

diote adituek. Atea ahalik eta gutxien zabaldu behar da; berau zabaltzerakoan 25-50 gradu bitartean galtzen dira. Labea behar dena baino arinago amatatzea ere ideia ona izan daiteke, barruan geratzen den beroa azkeneko minutuetan aprobetxatzeko.

- **Garbigailua** martxan ipintzerakoan, karga maximoa aprobetxatu. Zikinago dagoen arropa beste arropetatik banatzea komeni da. Arropa zikinena tenperatura altuagoan garbitu behar da, eta beste arropak nahikoa dute 30-40 gradugaz. Xaboa neurritz erabiltzea ere gomendatzen dute. Larregi erabiltzeak ingurugiroa kaltetzen du, eta txartoago garbituko du garbigailuak; arropetan xaboi arrastoak geratu daitezke.

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Urreak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Uztailearen 8an, 22:00etan, Durangoko Plateruenean

IKER UNDERSOUND + RUBEN COSTAS

Platerueneko itxiera jaialdia egingo dute gaur etxeko DJak diren Iker Undersound eta Ruben Costasek. Durangaldeko DJen aurretik giroa berotzen jarduteko, bestalde, Txixarro diskotekako Ibailo DJ gonbidatu dute. Gaur 22:00etan hasita, 06:15 arte iraungo du Platerueneko Gau Elektronikoak.

ANTZERKIA

ELORRIO

> Uztailearen 15ean, Musikaire jaialdiaren barruan, Pelmanec taldearen **Don Juan memoria amarga de mí** antzezlan, 22:30ean, Argiñetan.

BERBALDIA

DURANGO

> Uztailearen 8an, Eugenio Garcia-ren **nutrizio pranikoari** buruzko berbaldia, 19:30ean, Baranhandia yoga zentroan. Izena emateko: 634 448 599.

> Uztaileko martitzen eta eguene-tan, **Zer da coaching prozesu bat?** hitzaldia. Izena ematea: 94 603 06 74. Informazioa: www.lespaciodelcoaching.wordpress.com.

DANTZA

DURANGO

> Uztailearen 9an, Uda Klean Bizi jaialdiaren barruan, **Noche de tangos argentinos** (Tanar laukotea eta Joseba eta Bakartxo), 20:00etan, Ezkurdin.

> Uztailearen 10ean, **Udako dantzaldia**, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, Ezkurdiko plazan (euria egingo balu Merkatu plazan).

ERAKUSKETA

DURANGO

> Uztailearen 1etik 15era, Jesus Mari Arruabarrenaren **Ckristopaganía**, Ezkurdiko aretoan.

JAIK

ABADIÑO (Mendiola)

> Uztailearen 8an, **briska txapelketa** 17:30ean. 19:00etan **Donien Atxa ipintzea**, txistulariek lagunduta. **Berakatz zopa** auzotarrentzat, 21:00etan. 23:00etan **Ghetto, Trastorno eta Los Zopilotes Txirriaos** taldeen kontzertuak.

> Uztailearen 9an, 11:00etan, **meza**. 12:00etan **XVI. Artzai txakur txapelketa**. 13:00etan **Auto klasikoen erakusketa**. 14:00etan **herri-bazkaria**, eta **Igor Elortza eta Iker Zubeldia** bertsolarien saioa ondoren. 17:30ean **umeentzako jolasak**. 19:00etan **tortilla txapelketa**. 22:00etan **Esti eta Olatz**

kantaldian. 23:30ean **Luhartz** taldeagaz erromeria. 03:00etan **txokolatea bizkotxoekin**.

> Uztailearen 10ean, 12:30ean, **Alluitz dantza taldea** eta Abadiño dantzarien emanaldia. 13:00etan **gazta, ogia eta ardoa** banatuko dute. 14:00etan **errifa zozketa** eta **Donien Atxa kentzea**.

ZALDIBAR

> Uztailearen 8an, Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketako **trikitilariekin kalejira** 11:00etan. **Meza** San Andres parrokiaren, 12:00etan. 17:00etatik 20:00etara **eskulanen erakusketa** Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan. 18:00etan, **txaranga** kalez kale. 18:30ean afizionatuen arteko **pilota partidak** Olazar pilotalekuan. 19:00etan, **umeen arteko olinpiadak** eskolan. 22:00etan, rock kontzertuak: **Bizardunak** eta **Disorders**.

> Uztailearen 9an, **Arku jaurtiketa** ume eta nagusientzat, Arku

taldearen galerian. 11:00-13:00 eta 16:00-19:00: **quad-ak, jumping, txalupak, puzgarriak...** eskolan. 12:00etan **tortilla txapelketa** eta **saskibaloio partidak**. 15:00etan **herri-bazkaria** txosnetan. 17:00-20:00, **eskulanen erakusketa** Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan. 18:00etan **Kale animazioa**. 19:00etan **Afari-merienda** Olea kalean. 21:00etan **Iuntxa** Gaztetxean. 00:00etan **Gozategi**.

> Uztailearen 10ean, 11:30ean **meza** San Martin ermitan. 17:00-20:00, **eskulanen erakusketa** Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan. 18:00etan **bertsolariak** Zaldua plazan: Balkoitik balkoira. 23:00etan **su artifizialak** Askorra kalean.

MUSIKA

DURANGO

> Uztailearen 8an, **Iker Undersound & Ruben Costas** eta **Ibailo** 22:00etan, Plateruenean.



Uztailearen 8an, Abadiño Mendiola jaietan

MENDIOLAKO JAIETAKO DOINUAK

Asteburu honetan, goizetik gauera arteko jai-giroa topatuko du Abadiño Mendiola auzoko jaietara hurreratzen denak. Gaur, 19:00etan, Donien atxa ipini eta gero, 23:00etatik aurrera batuko dira Mendiolan jaia eta musika. Durangaldeko Ghetto eta Trastorno taldeek eta argazkiko Los Zopilotes Txirriaos nafarrek joko dute.

> Uztailearen 12an, **Silvia Palumbo** kantautore argentinarraren kontzertua, Uda Klean Bizi jaialdiaren barruan, 20:00etan, Etxezarreta parkean.

> Uztailearen 15ean, **Antonio Vega** musikaria omentzeko kontzertua, 20:00etan, Kurutziaga hotolean.

ELORRIO

> Uztailearen 8an, **Joseba Tapiaren** kontzertua, 22:30ean hasita Argiñetan, Musikaire jaialdiaren barruan.

> Uztailearen 9an, Musikaire jaialdiaren barruko **Diego Cortes** gitarristaren kontzertua, 22:30ean Argiñetan.

> Uztailearen 10ean, Musikaire jaialdiaren barruan, **Oreka Tx, Kukai eta Amaren Alabak** taldeen dantza eta musika ikuskizuna, 22:30ean, plazan.

> Uztailearen 14an, **Txabolakumeak + Izen barik** taldeen kontzertua, 21:00etan, Portalekuan.

ZINEMA

BERRIZ

> Uztailearen 8an, **Piratas del Caribe en mareas peligrosas** filmaren emanaldia, 22:15ean, Udako Zinea zikloaren barruan, Olakueta plazan.

> Uztailearen 15ean, **Aguila Roja** filmaren emanaldia, Udako Zinea zikloaren barruan, 22:15ean, Olakueta plazan.

ELORRIO

> Uztailearen 14an, Hilean Behin jaialdiaren barruan, **Olimpicamente grandes** dokumentalaren emanaldia, 22:30ean plazan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Cars 2 3D

Zuzendaria: John Lasseter eta Brad Lewis

barikua 8: 18:00/20:30

zapateria 9: 17:00/19:45/22:30

domeka 10: 17:00/20:00

astelehena 11: 18:00/20:30


martitena 12: 20:00

MUSIKAIRE
UDAKO JAIALDIAK ELORRION 2011
> UZTAILAREN 1etik 23ra <

» Promozio / Urtarril 7
DIEGO CORTES
» Musika eta dantza / Urtarril 10
OREKA TX & KUKAI & AMAREN ALABAK
» Antzerki / Urtarril 15
COMPANIA PELMANEC
» Antzerki / Urtarril 16
MORFEO TEATRO
» Dantza eta dantza / Urtarril 21
CIRCUS-TANZIA
» Musika eta dantza / Urtarril 22
MULATU ASTATKE
» Musika eta dantza / Urtarril 23
AMSTERDAM KLEZMER BAND

www.musikaire.com

GURUTZEGRAMA

		Euskal behi basak	Fruitu basa	Izan ... izaten ahal zen
		Benetan	Noka, nien	
		Tuberku-losi		
		Kontso-nantea		
Ezin higituzkoak	Toka, diet			
* Irudiko mendia	Erlakizten			
		Herri nafarra		
		Frantziako hiria		
Eskutitzak				
Pisu unitatea				
		Neona		
		Lehorra		
Izan, ukan				Bokala
Larru				Eako biztanle
		Dagoen		
		Toka, doa		
Eutsia				Portu
Indioa				
		Giza nortasuna eman (Errep.) Txori mota		
Nor, pluralean		Nafarroako herria		
Ikuskizun		Sufrea		

SUDOKUA

		8	5					
	1	2						9
				8		6	4	
8				5	6	3		
							2	1
5			4	3				
6	8				7			
					8			
							4	1

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga.....	0,80 euro	Iderrak.....	5-6 euro/kg
Zebolletak.....	1,50 euro/tx	Bainak.....	5 euro/kg
Azelgak.....	1,50 euro/kg	Arrautzak.....	3,60 e/dozena
Espinakak.....	1 euro/tx	Idiazabal gazta.....	16,50 e/kg
Piperrak... ..	2,50 euro/dozena	Espelta ogia.....	3,60 euro

ZORION AGURRAK zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Elenek uztailaren 6an urtetxo bat egin zuen eta **Oierrek** uztailaren 11n 8 egingo ditu. Zorionak eta musu handi bat, Leire eta etxeokoen partez!



Juerga goguz etorri jaku **Mikel** mundura Sanferminetako txupinazoagaz! Zorionak Esti eta Gabrieli, lurretako familiaren eta lagunuen partez! Ia Sanmigelak aurretik ezagutzen dogun gure ingeles txikia!



Zorionak amama **Kristina** zure 80. urtebetetzean. Izugarri maite zaitugu! Zure familia.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

BOTIKAK

Barikua, 8
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
 09:00-22:00
 • Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Zapatua, 9
 09:00-09:00
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
 09:00-13:30
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
 • Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
 • Campillo (Montebideo 24 - Durango)
 • Jaio-Olbarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
 • Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
Domeka, 10
 09:00-09:00
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 11
 09:00-09:00
 • De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
 09:00-22:00
 • Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
Martitzena, 12
 09:00-09:00
 • Campillo (Montebideo 24 - Durango)
Eguaztena, 13
 09:00-09:00
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 09:00-22:00
 • Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4 - Abadiño)
Eguena, 14
 09:00-09:00
 • Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK
 Euskotren902 54 32 10
 Bizkaibus94 448 40 80
 Pesa902 10 12 10
 Continental Auto945 286 466

TAXIAK
 Abadiño946 814 470
 Matiena606 459 988
 Durango Geltokia946 811 001
 Elorrio Geltokia946 820 040
 J.L. Uriarte670 402 002
 I. Estebez670 678 273
 M Galeano.....946 582 854
 Iurreta946 201 565
 Taxi auzunea688 618 690

UDALAK
 Abadiño94 621 55 30
 Atxondo94 682 10 09
 Berriz94 682 45 84
 Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12
 Garai94 681 63 93
 Iurreta94 620 12 00
 Izurtza94 681 35 48
 Mallabia943 17 14 61
 Mañaria94 681 89 98
 Otxandio945 45 00 20
 Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA
 Abadiño94 621 55 33
 Berriz94 682 40 36
 Durango94 603 00 10
 Elorrio94 682 02 18
 Iurreta94 620 08 88

EGURALDIA

15 **24º BARIKUA** ☁
 14 **26º ZAPATUA** ☁
 14 **23º DOMEKA** ☁
 16 **24º ASTELEHENA** ☁
 13 **21º MARTITZENA** ☁

ARIES (martxoak 21 - apirilak 20)
 Azken aldian ahaztu samar daukazu lagunak. Gogoratu lagunak bizi osorako direla.

TAURUS (apirilak 21 - maiatzak 20)
 Udarako plan ugari dituzu; ondoko antolatutaz ezean, ezingo dituzu guztiak gozatu.

GEMINI (maiatzak 21 - ekainak 20)
 Tirabiraren bat izan dezakezu aste honetan. Umorre onez egonez gero, hobeto eroango duzu.

CANCER (ekainak 21 - uztailak 20)
 Uda heldu da! Egin egizuz mailetak, honakoa abenturak bizitzeko garaia da-eta!

LEO (uztailak 21 - abuztuak 23)
 Ereiten dena jasotzen dela esan ohi da. Zu ez zara salbuespena izango.

VIRGO (abuztuak 24 - irailak 23)
 Ekonomikoki zailtasunak izango dituzu aste honetan, baina etorkizunean hobera egingo duzu.

LIBRA (irailak 24 - urriak 23)
 Indarrak barik egongo zara egunotan. Atsedean harzea komeni zaizu.

SCORPIUS (urriak 24 - azaroak 23)
 Belaunean minak izan ditzakezu aste honetan; igeri egiteak on egingo ditu.

SAGITARIUS (azaroak 24 - abenduak 23)
 Buruari bueltak ematen zabilta aspaldi honetan, gauzak konpontzeko aukera izango duzu.

CAPRICORNUS (abenduak 24 - urtarrilak 20)
 Zeren zai zaude? Jantzi egizuz arropa zuriak eta zapi gorria: heldu dira Sanferminak!

AQUARIUS (urtarrilak 21 - otsailak 21)
 Zure ingurukoek laguntza eskainiko dizute. Onartu egizu, on egingo dizu-eta.

PISCIS (otsailak 22 - martiak 20)
 Gelditu barik ibiliko zara aste honetan, lan eta lan. Zaindu egizu osasuna.

Denborapasen SOLUZIOAK

8	1	7	5	6	9	7	3	2
3	9	7	8	4	2	5	6	1
6	5	2	7	1	3	4	8	9
9	8	6	2	3	4	1	7	5
1	2	5	6	7	8	9	4	3
4	7	3	9	5	1	6	2	8
4	2	9	1	8	6	3	7	5
6	8	5	3	7	6	2	1	4
1	3	7	5	2	4	8	9	6

I	R	V	K	S	U	K	I
S	V	R	V	•	K	V	•
U	T	R	O	N	•	N	I
•	V	O	Z	O	R	I	•
N	E	D	•	7	V	Z	V
E	•	I	K	U	D	E	•
E	N	•	V	O	7	I	K
K	V	N	U	U	U	U	•
E	R	V	Z	•	Z	I	O
T	V	E	I	Z	•	H	•
I	S	I	U	•			
Z	V	N	E	B			
•	B	•	B	•			



Jon Artza
Soziologoa

"Behin utzita, gure adinean, gaitza da entzierrora bueltatzea"

Entzierraren hasierako txapligoaren ondorengo urduritasuna itzela izaten ei da; gerokoa segundu eta metro gutxiko kontua da

Sanferminak direla-eta, entzierrorotan ibili izan diren lagun hauekin batu gara berriketarako. 30 urte baino gehiagoko korrikaldiez berba egin digute; orain utzita dituzte zezenaren aurreko balentriak. Durangoko 'Zezenak dira'-ren bueltan ere ezagunak dira.

Korrikalari jubilatua zarete. Noiz utzi zenioten entzierrorotan parte hartzeari?

Jose Angel Rodriguez: Nik orain dela urte bi utzi nuen. Zezen batek besoa zapaldu zidan eta hiru hilabete kosta zitzaidan errekeratzea. Aurten dudana nago oraindik. **Natxo Martinez:** Hiru urte daromatzen parte hartu barik. Osasun arazoek, batez ere belaunekoek, bultzatu ninduten. Behin utzita, adin honetan, gaitza da bueltatzea. **Gontzal Madariaga:** Orain dela sei urte utzi nuen. Hanketako arazoak, adina...

Ibilbideak hainbat puntu famatu ditu, Estafeta kalea, esate bate-rako...

J.A.R.: Mercadereseko bihurtu nuen hasi eta Estafetan korrika egin nuen nik. Zati gogorra da, bigarren hasiera lako bat delako. Zezenek labandu eta tabladuaren kontra jaustera jotzen dute normalean. Estafetak gorantzako aldapa dauka, eta zezenak indartsu ateratzen dira.

Bakoitzak ahal duena, beraz.

N.M.: Zezen baten aurretik ibilita, gero besteren bat hartzen baduzu, asko jota 100 metro osa ditzaitezue. Taldean badoaz, 40 metrotik gora egitea gaitza da; gainetik pasatzen zaituzte abiadagatik.

Telebistatik, behintzat, arrisku-tsua ematen du...

J.A.R.: Bai, baina Iruñean zezenak taldean joaten dira normalean, eta gainera joaldunek laguntzen diete. Faltzesekoak eurak arrisku-tsua gozatu izan daitezke, mendian behera etortzen dira-eta.

Iruñean ere zezen batzuk euren kabuz ibiltzen dira...

N.M.: Hartu dezakezun sustoa ikaragarria da. Atzean geratzen, ez dakite nora joan behar duten ere, eta buelta emateko intentzioa izaten dute.

G.M.: Orain, gutxienez, Estafetan segurtasuneko atea ipini dute, eta hortik ezin dute atzera egin.

Zer egin behar dut lurrera jausiz gero?

J.A.R.:
Onena bertan geratu eta babes-
tea.

Altxatuz gero, zezenak kolpetik harrapatu zaitzake, eta hor ez dago salbaziorik. Min egin arren, hobe da zapaltzen bazaitu. **Giroa lasaitzean,** baten batek

lurrean zaplada bat emanez abiatuko zaitu.

Zein da ezinbesteko arropa?

G.M.: Kamiseta manga luzea, entzierrorren % 70 ean lurrera



erortzen zara-eta. Bestalde, zapi ondo dago, baina gerrikoa ez; zezenak adarragaz hortik hiltzen bazaitu airean eramango zaitu.

Ganadutegiaren artean zein da beldur gehien eragiten dizuena?

J.A.R.: Momentu honetan Cebada Gagokoak, nire ustez.

N.M.: Izaera erasokorra dute horiek; entzierrorren beti doaz jendea menperatzen. Zezena, animalia ikararria da berez; mendian ihes eginen saiatzen da. Erasotuta edo inguratuta sentitzen bada, haserretu egiten da, adarkadaka. Biziraupeneko legea da.

Hainbeste urtean momentu txarrak ere biziko zenituzten...

J.A.R.: Zapaldu ninduenekoaz gainera, bati torniketea egin nioneko dut gogoan. Salbatzea lortu zuen.

N.M.: 1982an, entzierror baten bi lagun hil ziren, Estafetan eta plazan. Plazan jende multzo batean geunden, hesia igarotzeko zain, eta zezenak, denoi begira zegoela, albokoari sartu zion adarra.

G.M.: Plazako sarreran, zezen batek buelta eman eta 19 urteko mutil bat hil zuen, nire aurrean.

Iruñeraino joanda, eguna aprobetxatuko zenuten...

J.A.R.: Behin bazkaldu eta zezen-plazara joan behar nuen, baina abesten-eta genbiltzan eta ahaztu egin zitzaigun bertara sartzea!

Anekdotarik izango duzue...

J.A.R.: Behin Guadalajarako lagun bat etorri zen, eta ea kotxea non utzi zuen galdetuta "calle kalea" esan zigun. Ordu bi eman genituen kotxea topatzeko.

Jose Angel Rodriguez 'Peque', Natxo Martinez eta Gontzal Madariaga •

Iruñeko entzierrorren urte askoan ibilitakoak

Haserretuta

Nire belaunaldiko gurasoek *Neban* ahoskatzen dute Paul Newman guapoa zela esateko. Familia gehienetan, aita fabrikari eta ama etxean lan egiten zuten. Oporrak, izatekotan, etxetik hurbil, eta aisialdirako aukerak mugatuak izaten ziren. Gurasoek gaztetatik lanean hasi beharrik, ez zuten ikasteko aukerarik izan. Hargatik, beraien erronka nagusia guri ikasketak egiteko aukera eskaintzea izan zen. Ikasketak bukatuta, guk ere ez dugu bide erraza izan. Langabeziaren hazkunde eta lan-kontratuaren malgutasunaren ondorioz, belaunaldikoak gara, baina, oro har, aurrekoek baino aukera gehiago izan dugu. Beraz, gure gurasoen helburua bete dela esan dezakegu.

Akaso, zure gurasoak beste generazio batekoak izango dira. Biak ala biak lanean ariko dira, eta Newman, Rolling Stones edo Springsteen ere ondo ahoskatuko dute. Ikasketak eta mundua ezagutzeko aukera apur bat izan dute, eta beraiekin sexuaz, drogez eta abarrez nahiko eroso hitz egin dezakezu. Ekonomikoki, bere aurrekoak baino estuasun gutxiago izan dituzte, eta beraien aholkuei jaramon egin ala ez, ikasketak apartak burutu dituzte, masterra barne. Jarraian, atzerriko urte eta erdi pasa eta ingelese ondo menperatzea lortu duzue.

Udazkenean 30 urte beteko dituzte, eta ez duzue lanik aurkitzen. Eskaintzen dituzten mila eurotara iristen ez den soldataren truke. Oraindik gurasoen etxean eta gurasoei esker bizi zara. Nola ez zara haserre egongo!

Bodegas Launa Arabar Errioxa

Launa plus

www.bodegaslauna.com info@bodegaslauna.com Tel.: 94 682 41 08